

ERTZAINZAKO BURUZAGIEI

Lankide estimatuok:

Oraindik orain, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai batek berriro kalkulatu arazi du Ertzaintzako Intendente Katategoria lortzeko 2011ko aukeraketa prozesuari zegokion puntuaketa

Epaiak ezarritako birkalkulaketa horrek ondorio bi izan ditu: batetik, aukeraketa prozesu hura gainditu banuen ere, nik ez dut plazarik lortu hartan eta, ondorioz, Komisarioarena da nire oraingo kategoria profesionala. Bestetik, aukeraketa prozesu hura gainditua zuen beste Komisario lankide bati, Ertzaintzako Intendente Katategoria lortzeko ikasketak eta praktikaldia egiteko eskubidea aitortu dizkio. Orain, Administraritzak, ikastaldi hori eskaintzeko obligazioa du.

Duela egun batzuk, Larrialdien eta Poliziaren Arkauteko Akademiako Zuzendariak Ertzaintzako Intendente Kategoriarako sei plazaren aukeraketa prozesu berri baterako deialdia egin du. Deialdian parte hartzea erabaki dut.

Egoera berri honetan, bapatean sortu den testuinguruak Ertzaintza-Buru izaten jarraitzea gehiegi baldintzatzen dutela uste dut. Horregatik, zerbitzu komisioan betetzen dudana Ertzaintza-Buru postuko errenuntzia aurkeztu diot Segurtasun Saiburuari.

Nire errenuntzia onartua izan da eta, lehendabizi nire hurbileneko lankideei jakinerazita, zuei guztioi jakinarazten dizuet orain.

Eskertzen diot Saiburuari Ertzaintza-Buru izendatu ninduen egun beretik nirekiko erakutsi duen konfidantza. 2016 Ortzimuga-Ertzaintzaren Plan Estrategikoak finkatutako bidea jarraituz, Ertzaintzaren etorkizuna eraikitzen ari den gizon eta emakume taldearen gidaritza garatzeko aukera eman dit profesionalki.

1

Baina, batez ere, eskertzen diot Saiburuari, antolakuntzaren, profesionaltasunaren eta gizon-emakumeen garapenaren ikuspegitik Ertzaintza halako proiektu sakon batean murgilduta dagoen unean, pertsonalki hain zaila egin zaidan erabakiarekiko erakutsi dituen ulermena eta onespina.

Neure gaitasun profesionalak berean dirau, eta berdin Ertzaintza-Buru izatea onartu nuen egun beretik izan ditudan ilusioak eta konpromezuak. Egoera profesional berri honetan, izendatuko dizkidaten leku eta eginkizunetatik, egunez egun jarraituko dut lanean proiektu berritzaile honek aurrera egin dezan, Ertzaintza bere osotasunean hartuz eta indartuz.

Jorge Aldekoa
Erandio, 2014ko azaroaren 4a

2